

Ibilbideak eta topaketak hurbileko paisaian



Zein ibilbide egiten ditugu egunero? Zer dakigu eguneroko ibilbide horiei buruz? Zer pertsona eta istorio ezagutu ditzakegu pasabide horietan? Nola ikus ditzakegu bide horien barruan dauden bideak?

Helburuak

- Andrés Vialen lana eta sorkuntza- eta ikerketa-prozesuetara eta *Espai Colona* proiektura hurbiltzea.
- Ikasleek ikastetxearen inguruko lurralde geografikoa, soziala eta pertsonala aztertzea, beren komunitateei eta auzoei dagokienez.
- Hainbat ezagutza-arlo, pertsona eta errealitate harremanetan jartzea, harreman-izaerako arte garaikidearen bidez.
- Aurreko guztia gauzatzeko, hainbat ibilbide egingo dira lurraldean zehar, ikaskuntza-, aisia- eta bizikidetzatopaketa esanguratsuak egin ahal izateko.

Aipamenak

Escuela Internacional del Paisaje en el Paisaje (EIEPEP) – Andrés Vialen proiektua: <http://www.espaicolona.com/836-2/>

¿Se puede hablar de "arte Relacional"? – *Esfera Pública*: <https://esferapublica.org/nfblog/se-puede-hablar-de-un-arte-relacional/>

Future Farmers kolektiboa: <http://www.futurefarmers.com>

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. Ikasle bakoitzak paisaia baten irudia ekartzen du ikasgelara. Hauekin taldean horma-irudi bat eta elementu komunak eta bitxikerien zerrenda bat egiten dugu.

Zer informazio ematen dute lekuari buruz irudi eta hitz horiek? Nahi izanez gero, aurkituko al genituzke leku horiek? Zerk bereizten ditu mapetatik?

2. Ikasle bakoitzak bere etxetik ikastetxera egiten duen ibilbidearen marrazki bat egiten du, eta garrantzizkotzat jotzen duen informazioa gehitzen du (beste pertsona bati laguntzeko jarraibide gisa).

3. Andrés Vialen *Espai Colona* *Escuela Internacional de Paisaje en el Paisaje* (EIEPEP) lanaren aurkezpena ikasgelan egiten dugu. Aurretiko bi jarduerekin loturak ezartzen ditugu.

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Hiruko taldeetan, talde bakoitzak eskolaren eta gertuko inguruen plano bana du. Taldeko pertsona bakoitzak kolore batekin marraztu behar ditu normalean egiten dituen ibilbideak, eta bere leku gustukoak markatu. Paraleloki, idatziz edo marraztuz gure gogokoak zergatik diren azaltzen dugu. Azkenik, partekatu egiten dugu, antzekotasunak, desberdintasunak eta bitxikeriak berriz ere ikusteko.

2. Gure buruari galdetzen diogu nora iritsi nahiko genuke oinez eskolatik, han zerbait berezia egiteko (festa bat edo merendola bat...). Lekuaren erabakia hartzen dugu, bosteko taldeetan, ibilbidearen mapa/ planoen lehen zirriborroak egiten dira. Helmugako lekuan zer egin daitekeen ere jakinarazi behar dugu.

3. Proiektua hasi zenetik, irakasleek konplizitateak ezarri dituzte ikastetxea dagoen auzoko hainbat auzotarrekin (adibidez: farmaziako, okindegiko, trafikoa kontrolatzen duen udal-agentea, etab.). Lekua eta ibilbidea argi izanik, irakasleek auzotar bat edo hiru aukeratzen dituzte, ibilbidean taldearekin topo egingo dutenak.

4. Ikasleak mapa kolektibo handi bat egiten hasiko dira. Aurkituko ditugun pertsona konplizeentzako galderak pentsatzen ditugu. Txango txikiaren ondoren, esperientzia bisualki eta hitzez jasotzen dugu.

5. Azkenik, planifikatutako ibilbidea egiten dugu, planifikatu ez denari arreta jarritz, pertsonekin eta paisaiaren elementuekin bat-bateko topaketei. Ikasle batzuek esperientziaren ikusizko-dokumentazioa jasotzen dute argazki digitalekin eta beste batzuek idatzizkoa landa-egunerokoen bidez.

Ondorioak eta lerro irekiak

1. Esperientziatik jasotako informazioa, ikusizkoa zein idatzizkoa, landu eta editatu egiten dugu, mapa/planoan eskala handian islatzeko.

2. Aurkezpen publikoa, ikastetxean edo baita auzoan ere, non pertsonen eta mapen arteko harremanaz, egiten ditugun ibilbideez eta horietan gertatzen denaz eztabaida dezakegun.